

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### **2019 ekitaldiko ondasun higiezinaren gaineko zerga. Ordainketak borondatezko aldirian**

2019 ekitaldiko ezaugarri bereziko, hiri-lur eta landa-lur ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriak, 2019ko irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean, biak barne, borondatezko aldirian ordaintzeko jendaurrera aterako dira.

Bankuan helbideratuta dauden erreziboak, urriaren 7an kobratuko dira.

Helbideratuak ez dauden erreziboak berriz, helbide fiskalera bertara bidaliko diegu zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria. Zorretan dagoena agiri hori eskura eduki ezean edo irailaren 16rako agiri hori jaso ez badu, Udaletxean, bulego orduetan, eskatuko du agiria, borondatezko ordainketa aldirian.

Borondatezko epea igaro ondoren, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindu gabeko kuotei otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek xedatutako errenergua gehituko zaie.

Aramaion, 2019ko uztailaren 23an

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*